


Astekaria



elgoi

Frankoren tropak Elgoibarren

1936ko irailaren 21a



IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE

San Frantzisko 43 • ☎ 74 27 20 • ELGOIBAR



auto-eskola

*Izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*



BANATZAILE
OFIZIALAK:



PEROBELL

cattelan
italia

EBANIS



GRASSOLER
DESIGN

herma

NANI
MARQUINA



CARLOS
JANE
CAMACHO

porada
DESIGN

racconti
GUGINE

STOKKE



Zur ta Lur

●●●●●ALTZARIAK●●●●●



*Gurea beste
mundu bat da.
ZATOZ!!*



SWISSFLEX



Olaso kalea 27 eta 54 A - ELGOIBAR 20870 - Tel./Faxa: 74 42 84

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.
ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.
PUBLIZITATEA:
Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.
ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegia, Xabier
Ansola, Nekane Aranburu,
Pello Arrieta, Juan Mari
Elustondo, Ina Garagarza,
Ane Goikoetxea, Amaia
Gorostiza, Juanito
Gorostiza, Maite Iriondo,
Edu Iriondo, Alberto
Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Javi León, Juan
Mari Mendizabal, Milagros
Oiarzabal, Benantzio
Otaegi, Aitor Zabaleta,
Julen Zabaleta, Deñe
Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
TIRADA: 3.800 ale
LEGE GORDAILUA:
SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Eta opor ostean zer?

Hori, hori!" izenburuko hori izan-
go litzateke gutako askok burua-
ri egingo geniokeen galdera
oporetara joan aurretik, baina
oporrak luzeak iruditu eta bi
aldiz galdera horren erantzuna pentsatu
gabe maletak egin eta han joan gara
hemen falta izan zaigun eguzki bila, mun-
dua ezagutzera... edo zeinek jakin nora.

Euskal Herritik irten gabe ere badago
gure herri hau jairik jai ezagutzen saiatu
denik, kostaldean etxea izan eta Deba,
Donostia, Zarautz... aldera hurreratu
denik edo gure Elgoibar hau zaintzen
geratu denik.

Ondo, oso ondo ibili gara denok,
eguzkia hartu, leku berriak ezagutu, ondo
jan eta lo egin... nor ez da ba ondo ibiliko
horrela?

Batzuentzako oporrak abuztuaren
azken astea bukatu arte luzatu badira ere
elgoibartar gehienok San Bartolomeak
izan ditugu etxera eta herrira berriz ere
egokitzeko eta dagoeneko oraindik ajea
pasatu gabe iritsi zaigu hainbeste beldur
ematen zigun iraila.

Aldaketa garaia da datorkiguna, urtaro
berria, eguraldia hoztu, eguna moztu, pai-
saiak kolorez aldatu...

Duela urte gutxi batzuk arte denok
oporrak abuztuan hartzen genituen arren,
gero eta gehiago dira abuztuan lan egin
eta iraila edo urrirako uzten dituztenak,

edo hilabeteko atsedeen-egunak jarraian
hartu beharrean urtean bi zatitan hartzen
dituztenak.

Urteko bederatzigarren hilabetea iza-
teaz gain, iraila udari itxi eta udazkenari
atea irekitzen dion hilabete latza da
denontzat: eskola garaian daude batzuk
dardarka azterketak direla-eta; ikastolara
lehenengo aldiz doazen haurrak negar
batean, nagusiagoak ere berdin, nahiz eta
matrikula egin eta oraindik ia hilabeteko
oporraldia daukaten; lanera itzuli behar
diren langileak nagituta eta urduri, aurki-
tuko duten lan egoerak kezkatuta; etxeko-
andreak ere igartzen dute, eta zer esanik
ez lanik ez dutenek.


Denon alferkeriaz aritu naiz orain arte
lana dela eta ez dela, baina egongo al da
lanik denontzat? Zein izango da ikusiko
dugun egoera?

Indarberritu eta oporrak pasatu ondo-
ren lanera bueltatzeak dakarren aldapa
goraz asko hitz egiten bada ere, ez ote da
hobe abuztua bukatu ondoren lanera buel-
tatzea, nahiz eta kostatu? eta ez iraila iri-
tsi eta lanik ezak arduratuta, telefono dei
baten zain egotea?

Lanera bueltatzea hainbeste kostatu
zaizuenok begiratu iezaiozue, beraz,
horren alde onari, txarragoa da-eta denbo-
rapasa eta aldaketarik jasaten ez dugunon
egoera.

Deñe Zabalo

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

“Ba al dauka Udalak Madalatik Mintxetarako bidea konpontzeko asmorik?”

Alkateak esan digunez, “laister batean San Lorentzo errearen norabidea aldatzeko lanak hasiko dira. Horrekin batera Madalatik Maiortako zerrategiraino oinezkoentzako espaloia jartzeko asmoa dago”.



KEXAK

- Leku-Ederren bizi den herritar bat etorri da **Leku-Eder eta elizaren artean dauden eskaileretan kristoren pixa hatsa** egoten dela esateko. Hau zergatik ez den garbitzen galdetu nahi du. Halaber, parkean ibiltzen diren txakurrak eta haurrak zaintzeko eskaria luzatu nahi du, batzuek eta besteek hankaz gora lagatzen baitute parkea.



TXALOAK

- “Udala txalotu nahi dut **634 errepeidean jarri dituzten karteltxoak** herriko hainbat toki esanguratsuren kokagunea zehaztuz, benetan ideia ona iruditzen baitzait”.

ESKUTITZAK

San Bartolomeak 96

Jaiak nola joan diren baloratzeko orduan alde batera utzi nahi ditugu gutun honetan abuztuaren 24 gaueko gertakizunak, haiei aparteko debate bat baitagokie.

Hasteko, urteroko kritika egin behar dugu Udalak ikurrinari emandako tratamenduz. Aurten ere garbitzaileak jarri zuen goizeko halako orduren batean, nahiz eta ordu batean Alkateak jartzea eskatuta eta hitza emanda egon. Horregatik aurten ere egin zaio agurra, gure herriaren ikurrak zerbait merezi baitu. Espainola agian elegantzia handiagoz jarriko lukete.

Txalo biribila ekarritako musika ikuskizunei. Orokorrean euskal giroko taldeak izan dira nagusi eta ikusi da herriko jendeak erantzun egin duela, bai asistentzia kopuruan bai dantza eta salto egiteko orduan. Bide honetatik jarraitzea espero dugu hurrengo urteetan ere. Ikusita dago jadanik Madalako jaigunea sendotuta dagoela eta gazteriaren elkarte gune nagusi dela.

DEF CON DOSen emanaldia ere ontzat jotzen dugu. Horrek erakusten du generoa ona bada gazteek badakitela Goiko Plaza betetzen.

Herriko kuadrila, elkarte eta taldeen partaidetza-falta nabaria izan da. Urte askoan Jai


Batzorderik ez egoteak ohitura txarrak sortu ditu arlo honetan. Aurten deialdia egin dela dio Udalak, baina nori? Nola? Benetan saiatu al dira partaidetza hau bultzatzen? Hurrengo urteetarako esfortzu handiagoa eskatuko genioke Udalar partaidetzaren bultzatze horretan.

Elgoibarko H.B.

Zuzenketa

Joan den asteko BARRENeke “Eta Zure ustez” atalean Andoni Mujika eta Imanol Callejaren ahotan jarri genituen hitzak zuzendu nahi ditugu. Bertan Institutuan ikasten ari direla esaten zen eta beraiek ez ziguten ikasten ari ziren lekua aipatu.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Erretratu hau 1972koa da eta Elgoibarko Udalak herriko jubilatuei egindako omenaldi ekitaldia jasotzen du. Omenduak eta omenaldiaren egileak agertzen dira bertan. Zutik atzeko ilaran: **Valentín Peñalba, Angel Jauregi eta Juan Etxeberria** (†).

Bigarren ilaran zutik: **Lucio Berasaluze** (†), **Boni-**

facio Alonso, Francisco Araolaza (†), **Constantino Romera** (†), **Teodomiro del Campo, José Arrizabalaga, Angel Ajobita, Pedro Jauregi, Jose Luis Zubiaurre** (†), **Jose Uria, Jaime Arrese** (†) eta **Imanol Urain**.

Eserita: **Srta. Satur Ziaran** (†), **Don Jose Eizagurre** (†), **Eugenia Zigorruga** (†), **Ramon Galdos** (†), **Victoria San Martin** (†), **Maria Cristina Garcia** eta **Natalia Arrien** (†).

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

KEMEN



Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Gerrako oroitzapenak

Bihar, irailak 21, 60 urte beteko dira Francoren soldaduak Azkaraten behera jaitsi eta Elgoibarrera sartu zirela. Gerrate zibila gori-gori zegoen. Orduan ume eta gazte zirenek gaur egun 70 urtetik gora dute. Baina askok eta askok kontu horiek guztiak ondo baino hobeto dituzte gogoan. Historian atzera egin nahi izan dugu. Ez zer eta nola gertatu zen kontatzeko, elgoibartarrek 36ko guda nola bizi izan zuten jakiteko baizik. Eta horretarako bizipen ezberdinak geureganatu ditugu. Mariak baserrian izan zituen nazionalak edo Francoren tropak. Juanitok Markinara alde egin zuen. Agapita lanean zegoen Altzolako bainuetxean eta Aurelio gudaria izan zen.



1936ko irailaren 21ean sartu ziren Francoren soldaduak Elgoibarrera.

Maria Ansola

San Migeleko Belarreta baserrian jaio zen Maria Ansola.

20 urteko neskatxa gaztea zen 1936ko irailaren 21ean Francoren soldaduak Elgoibarrera sartu zirenean, “akordatzen naiz arratsalde partian, Upaitzatik behera zela etorri zan banderiakin gizon ilaria”. Mariak kontatu digunez, “tiro bat ere ez zaben bota, bake-bakian sartu zian”. Garai hartan belarretarrak esnea partitzera jaisten ziren kalera eguneru. “Soldaduak sartu eta bixamonian, aitxa zanak

esan zion 16 urteko nere ahizpiari eruateko trankil esnia, tirorik ez zaola eta jendiak esnia faltako zabala. Astuakin jun zan eta esnia emanda gora hasi zanian, Ziarda mendixan hasi zian tiro banaka batzuk eitzen”.

Mariak gogoan dauka egun haietan bizi izandako gutzia, “ama gaixorik zauan eta ahizpa etorri zan haxe bisitatzerara. Etorri ta gero-txuaura asturianuak, gorriak etorri zian Belarreta Goikua baserri gaineko bidetik. Reketiak Ziarda inguruan zeuden”. Bisita amaitu eta Mariaren aitak

alabari bidean lagunduko ziola esan zion. Bazihozen biak eta, halako batean, soldaduak agertu zitzaizkien, “¿a dónde van ustedes?” galdezka. Mariaren aitak eta ahizpak ez zekiten euskara baino, “Aitxak, ‘ni etxera’ esan ziu eta bestiek pentsau zebe espiaren bat edo kontrarixua zala. Eta detenitxuta eruan zitxuen”. Reketeak sartu eta hiru egunetara, “bidian gora auto eta jende mordo bat zetorren eta amak esan zigun etxetik ez urtetzeko”. Iluntzeko 6ak aldera norbaitek Belarretako atea jo zuen, “ahizta eta

bixok urten genduan eta kaskuekin gizon batzuk ikusi. Ez zakigun batekuak edo bestekuak zian ‘viva España’ hasi zian arte”. Emakumeak bakarrik zeuden Belarretan eta Franco-ren 20 soldadu inguru bertan geratu ziren, “lelengo lana ein zeben atiak eta bentanak zakuekin zerrau ondo. Izara zuri batekin banderia ein eta bentanara atara zeben eta orduan, gorrirak tiroka ekin ziuene gure etxera”. “Gurekin bizi izan zian, ganbaran eitxen zeben lo. Alde batian sartu zianian anparua hartu genduan ze, gurian aitxa eta ahizpia falta zian eta danak ginan emakumiak etxian. Egun batian nere ahizpa Antonia eta bixak sutonduan geunden eta bentanatik tirua sartu zan gurera. Nere ahizpari jo zion besuan. Odolak ertetzen zion mordua. Soldadu batek eruan zaban kuria eitxera eta Tolosara eruan zaben operatzera. Nik pasia hartu naban bisitatzera juteko. Kamioi batian jun nitzan Azkoitxira eta handik Tolosara autobusian. Bueltau



Soldaduak ikus daitezke Errosario kalean. Atzean Correos” zaharra, egun Kultur Etxea.

nitzianian etxera, ordurako tiroteuak gure aldian amaitxu ein zian soldaduak Arrateran sartu zian eta. Bidera erten jatazen reketiak ‘que ya han venido tu padre y tu hermana’ diarka”. Gero, aitak kontatu omen zieten soldaduek Eibarko elizara eraman zutela. Eibarren bonbardeaketa handia egon omen zen baina bera kalean behera hasi zen, etxera itzuli nahirik. Poliki-poliki

Arrate bailarara pasatu, Urkiola baserrira iritsi eta han Don Pedro abadearekin egin zuen topo, hura ere izkutatua. Handik jarraitu zuen etxerako bidea eta tirotea amaitu zenean lortu zuen iristea.

“Gerria amaitxu arte Belarretan konpainia osuak geratzen zian deskantsatzen, nazionalak”, kontatu digu Mariak. “Dirua zakanak noiz edo noiz patata tortilia eitxeko eskatzen zigun, 2 pezetan zauan arraultza dozenia”.

egin zuen Juanitok, “Markinara alde ein gendun pentsatzen haraino ez ziala ailegauko piska batian. Aurreko egunian Azkaraten izan nitzan ni, trintxeretan zeudenei kafia eruatzen. Markinan zazpi hilabete ein genduan elgoibartar askok eta ni urtebete egon nitzan Elgoibarrera bueltau be”. Familia ikusi gabe, haien berri apenas izan gabe egon zen Juanito, “Gurutze Gorrixan bidez ailegatzen zan kartaren bat 8 hilabetian behin edo”.

Agapita altzolarra da eta gerra piztu zenean Baintuetxean zegoen lanean, “Berasetatik behera sartu zian Altzolan. Balnearixuan sartu zian eta Francok hartu ein zaban. Ni zerbitzen nauan etorri zianian, kamarera nitzan. ‘Hospital de sangre’ bihurtu zaeben balnearixua, Donostiako hotel asko bezela”. Agapitak esan digunez, “guri esaten ziguten nazionalak emakumiei bularrak mozten ziuela. Gu oso respetauta izan ginan baina holakuak pasau zian”. Juanitoren hitzetan, “Elgoibarko udaletxian ‘Juicio

————— **Maria Ansola** —————



Juanito Arrieta eta Agapita Sorai

Juanito Arrietak 91 urte ditu, 82 Agapita Sorai-zek. Senar-emazte honek ez zuen elkar ezagutzen orain 60 urte. Gerra zibila bakoitzak bere aldetik bizi izan zuen: Juanitok Markinara ihes egin behar izan zuen eta Agapita Altzolako baintuetxean zegoen lanean. “Oso gitxi zian orduan Elgoibarren kotxian kameta zakanak eta ni txoferra nitzan. Irailaren 21ean, Franco-ren soldaduak Elgoibarrean sartu ziren egunean ihes

Juanito Arrieta eta Agapita Soraiz



Sumarísimo' bat baino gehi-
xo ein zan eta fusilau zaben
herritar bat edo beste ere”.

Agapitak gogoan du
nola gauez lo zeudela tiroak
entzuten zituzten, “balas
pac-cum deitzen zian zarata
hori eitzen zabelako. Harek
errebentau eitzen zaben eta
igual gibelian jo ezkerro, jata
dana errebentau. Egunero
operaziuak eitzen zian bata
bestian atzetik. Balnearixo-
ko saloian izaten zian eta
ate bitxartetik ibiltzen ginan
begiraten”. Bonbardeaketa
bat edo beste ere izan zen,
“elizako kanpaiak jotzen
zaben abisatzeko. Francon
abioiak ‘El abuelo’ deitzen
zian. Juanitoren esanetan
“bonbardeua zauanian jen-
diak ihes eitzen zaban. Gu
Markinan geundenian, Kar-
melitik fosa bat zaken hil-
dakuak sartzeko eta gu han
izkutatzen ginan”.

“Bildur haundixa
pasau genduan”, aitortu
digu Agapitak. “Gainera”,
jarraitu du, “beltzak etor-
tzen zian eta gu ez geunden
oin bezela ohitxuta beltzak
ikustera. Jendiak esaten
zaban neskak biolatzen zi-
txuela. Marruekos-eko zati
bat orduan Spainiana zan
eta Francok pagau eitzen
zauen soldadu moduan ari-
tzeko”. Gero, ez omen ziren
hain gaitzoak, “baina praka
zabal batzukin ibiltzen zian

eta hildakuei burua mozten
zauen urrezko haginak kent-
zeko”.

Behin Mendaro eta
Altzola bitarteko baserri
batera iritsi zen 16 urteko
mutil gazte bat, “ilunetan,
laino artian ailegau zana
gosiak. Baserrixan soldauak
zeuden, berak zakana beze-
lako uniforme urdinakin
baina ez zan konturatu
haiek falangistak ziala. Bes-
tiak, mantxeta rusua zakala
ikusi zabenian jakin zaben
kontrarixua zala. Nungua
zan galdetu zauen eta telefo-
noz deitxu referentziak
hartzeko. Han esan zauen
‘indeseable’ bat zala. Han-
txe bertan fusilau zeben”.

Aurelio Mujika

83 urte ditu Aurelio
Mujikak eta gerra denboran
soldadua izan zen. “Ni izate-
z Aizarnakua naiz eta
Elgoibarren apupilo nauan
osaban etxian. Soldautza
ein nabari bi urtian marinan
eta handik bueltan hasi zan
gerria. Elgoibarrera sartu
zianian bandera espainolakin
nik Markinara alde ein
nabari ze lehenao Ventas de
Zaraten egon nitzan fren-
tiantian”. Markinan astebe-
te inguru egin zuen Aureliok
eta gudariak eskatu zituzte-
nean Bilbora joan zen, “zela
soldao egon nitzan lehenao,
gazte berrikeri erakusten

niuen fusila zela hartu”.
Aureliok ez zuen sekula tiro
egiteko beharrik izan,
“Intendentzian egon nitzan,
trintxeran ez”. Gorbean
egon zen, “akordatzen naiz
zela metro t’erdiko elurra
ein zaban eta 15 egunian
egon ginan inkomunikauta.
Jatekua bazakaun, arrosa,
urdaixa eta lentejak eta eda-
teko kafia. Elurra urtu eta
harekin eitzen genduan
ura”. Behin, eraso gogorra
egin zieten nazionalistek
frankoren tropei, “demase-
ko kainonazua bota zauen
gure aldekuak eta bestieta-
ko asko hil zian. Nik ezer
jakin gabe reketen artian
zauan nere anaixa ere”.
Laredon preso egin zuten
Aurelio, “Italianuen mende
egon ginan kanpinetan. 20
bat egunetara Regimiento
de America deitzen zana
etorri zan. Elgoibartar jende
asko zauan tartian, harek
besarkadak! Kontrarixuak
izan arren lagunak ere
bazian, herrikuak izanda!”.

Preso guztiak lanerako
erabili zituzten, “bidiak ei-
txeko, kamioiak kargatze-
ko... Zaragozara eraman
gintxuen”. Azkenean,
Valentzian torno fabrika
ireki zuen Francok eta ber-
tara eraman zituzten hainbat

txen gendun lan eta lotara
kartzelara jutun ginan”.
Tratu ona izan zuen denbo-
ra osoan zehar, “bazauan
bat edo bat amenazu eitzen
zabana, gorroto ziguna
baina ostantzian...”. Gerra
amaitu zenean aske utzi
zuten.

Aureliori Zumaiaiko
komandanteak pase berezia
eman zion askatasun osoz
ibiltzeko Gipuzkoan zehar,
“sasoi hartan salbokonduk-
tua bihar zan eta zela ni
marinan ibilitxakua nitzan
eta preso egon nitzanian
kondukta ona euki
naban...”. Elgoibarrera itzu-
li zenean, etxeko atarian
pilotan zebilela guardia
zibila bila joan zitzaion,
kuartelera oraindik joan
gabe zegoela eta, “San
Frantzisko kalian zauan
kuartela eta hara jun nitzan.
Erakutsi nion Zumaiaikuak
emandako pasia eta libre
laga zien. Bestela batek
daki nun egongo nitzan oin!
Gainera, suertia euki nabari
ze Valentzian lanian egon
nitzanez, dirua bialdu zien.
5.000 pta. edo, Gerran gal-
dutako bi hagin ipini nitxun
derrepentian!”.

Aurelio Mujika



Nola gogoratzen duzu gerrate zibila?



SABIN ALBERDI

65 urte

Morkaikun kriston tirotea zauan eta nere aitxa aurretikan banderiakin zixela hartu zaben. Akordatzen naiz kapitainan fisonomiaz. Nik 6 urte nakazen eta guk ez zakigun gerria zer zan.



MARIA ARRILLAGA

82 urte

Altzolako Torrekuan neskame nauan. Ospitxala ere han-txe zauan. Behin partia Ballibarrera erun bihar genduala esan ziguten. "Alto, quien vive?" galdetzen baziguten "Teniente coronel Cayuela" esan bihar gendun guk.



PATXI IRIONDO

82 urte

Nazionalak Urkaregin eta ni Markinan nauan, eskapauta. Kanbioian katiauta jun nitzan, 22 urte nakazen. Bilbon entregau nitzan eta bi urte beranduo bueltau nitzan, hotz izugarriak pasauta.



JOSEFA ARRIOLA

85 urte

Ederrak pasautakua naiz. Reketiak 9 hilabetian eon zian gurian. Etxeko gizonak eskapau ein zian eta nere senarra Bizkaixa aldian hil zan. Billurra beti, tirua tiro ganian zan da.



JULIO ARRILLAGA

82 urte

Lekitxora alde ein naban, oinez leleno, automobilian ere bai... Gartzelan Hondarretan eonda nao, kanpo konzentraziñuan Mirandan eta Santoñan kuartelian. Gosia galanta pasau gendun.



GREGORIA GOROSTIDI

83 urte

Gurian sartu zian setienbrian 21ean bost, eta hoietatik bat Infanta, Borboia. Lanik ez zigun ematen, berak eitxen zitxun danak. Morkaikon kañoia ipintzen ziharduenian tirua buruan sartuta hil zan.

AZALEA
Estetika eta edergintza
— MARI KARMEN BERECIARTUA —
Estetizista · Bisajista · Masajista
Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) ELGOIBAR - Tel. 74 03 10

Neguari aurre egiozu!
- GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan merkatuko azken berrikuntzak zure esku.
- DEPILAZIO elektrikoa eta argizariarekin.

gR **Goki eRreformak, s.l.** DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

KAROBI
PUB



ELGOIBAR

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37

HBren ustez, PNVk ez du eztabaidarako kapazitaterik

HBko kideek San Bartolome jaietan gertatukoari buruz alkateak esandakoari erantzun zioten joan den astean emandako prentsurrekoan. Elgoibarko gertaera gogor eta gordinak Euskal Herriak bizi duen egoeraren islada direla adierazi zuen Pello Mendizabal HBkideak. “600 preso politiko sakabantuta daude Estatuko gartzeletan. GALEko protagonistak, Galindo eta narkotrafikatzaileak kalean lasai-lasai, CESIDeko paperak sekretupean, eta hemen inork ez du inolako ardurarik”.

Narkotrafikoa Elgoibarren

Mendizabalek narkotrafikoaren aurrean Elgoibarko PNVk izan duen jarrera salatu zuen. “91n PNVko militantea zen mendarotar bat 200 kilo cocainarekin harrapatu zutenean Orue jaunak berehala aske uztea lortu zuen. Berak jakingo du zein tekla ikutu zituen. Hurrengo egunean, orduan zinegotzia zen Garate jauna, atxilotuaren alboan zegoen eserita herri kirol saio batean, hiritar eredu balitz bezala”.

Horrelako egoeren aurrean “arra-



roa egiten al zaio norbaiti kaleko giroa beroa izatea eta gero eta kale ekintza gehiago gertatzea?”. HBkoen ustez Paktoko alderdiak dira egoera honen arduradun, PNV eta PPren arteko sintonia gero eta handiago den seinale. “Bakeaz eta tolerantziak hitz egiten duten horiek, torturak estali eta Ertzantzaren errepresioa eta enfrontamendu giroa bultzatzen dute”. Jaietako istiluetan Ertzantza harrika aritu izanari buruz zera azaldu zuten: “guk ez genuen esan Ertzantzak hasi zitue-

nik istiluak. Istiluak hasi eta gero, jende artean paisanozko ertzainak harrika ibili zirela baizik eta hori Garatek berak ere badaki”. Istiluetan atxilotutako Plazentziako gaztearekin elkartasuna adierazi zuten HBkoek. “Gazte hau kolpatu, atxilotu eta besoa apurtu bazioten ere, PNVkoek ez dute ezer ere esaten eta orain manifestu bat kaleratzen dute. Berau idazterakoan ez gaituzte aintzakotzat hartu, hitzegiteko borondate eza eta eztabaidarako kapazitate eza erakusten dutelarik”.

Ikasturte berriaren aurkezpena Institutuan

1996/97 ikasturtearen hasiera datorren astearte eta asteazkenean, hilak 24 eta 25, izango da Herri Institutuan. Mailen arabera, egutegi eta ordutegi ezberdina prestatu dute:

Hilak 24, asteartea:

- 10,00tan BBB/IEEko 1. mailakoak

Hilak 25, asteazkena:

- 10,00tan BBB/IEEko 2. mailakoak

- 11,00tan BB (Batxiler Berriak) 1. mailakoak

- 12,00tan BB (Batxiler Berriak) 2. mailakoak, Hezkuntza Zikloak eta moduluak

- 19,00tan Ikasle berrien gurasoak Institutuko zuzendaritzak eta Orientazio Departamentuak zentroari, mailari eta ikasketa teknikei buruzko informazioa emango diete ikastetxera lehen aldiz doazen ikasleen gurasoei.



IMHn egongo den txinar ikasle taldeari ongi-etorri ofiziala egin zitzaion astelehenean udal pleno aretoan. Gillermo Garate alkatea eta IMHko hezkuntza eta arlo komertzialeko ordezkariak izan ziren txinarrei harrera egin zieten. Ikasleak koordinatzaile eta itzultzaile batekin etorri dira. Abenduaren 3ra bitartean makinak martxan jartzen ikasi eta hauen mantenua landuko dute, baita Estatuko enpresek Txinan saldutako makinek izan ditzaketan arazoan topaketa eta konponketa ere. 14 ikasle hauekin, 62 dira jadanik CNC programari esker IMHn prestakuntza teknikoa jaso duten txinarrak azken bi urteotan.



Uda sasoiko mendi-irteera bateko argazkia dugu goikoa. Iraileko lehen asteburua Pirinioetan igaro zuten eta igo zituzten mendien artean Monte Perdido (3.355 m) da aipagarria. Elgoibartar talde hau 15 lagunek osatzen zuen, gazteena 9 urteko neskato bat zen eta gehienak ikastolako DBHko bigarren mailako ikasleak eta hauen gurasoak dira. Mendizale amorratuak ei dira; urtean zehar irteera mordoa egiten dutela adierazi digute eta urte amaieran mendi altu bat igotzen dutela beti.



Kilometroak 96k antolatutako Sorotan Bele talde hondarribitarraren kontzerturauste baino lagun gutxiago hurreratu zen zapatu gauean Kiroldegira. Talde ezaguna bada ere haurrak ziren Kiroldegiko kantxan dantzan ibili zirenak, gurasoak eta gazteak, oraingoan behintzat, ez ziren gehiegi luzitu. Dena den, kontzertura joan zirenak gustura baino gusturago egon ziren hondarribitarren kantuak entzuten.

■ Parrokiko zerbitzuen ordutegia

Parrokiko Ubitarteko bulegoko ordutegia 12etatik 1era bitartekoa da astelehenetik ostiralera (Tel: 74 00 24). Sakristia egunero dago irekita goizeko 8,45etatik 9,45ak arte (Tel : 74 08 42). Apaizen telefonoak, berriz, hauexek dira: Benantzio Otaegirena 74 16 29a eta Jabier Gomezena 74 42 85a.

■ Alderdi Egunerako autobusa

Datorren domekan, hilak 29, PNV/EAJk Alderdi Eguna ospatuko du Gasteizko Salburuan. Hori dela eta, hilaren 27an EGiko gazte eta alderdikideentzako autobusa irtengo da asteburuko akanpadara joateko. Izena eman nahi duenak Plaza Handiko Batzokiko 74 27 44ra dei dezake.

■ Arreta berezia lapurreten aurrean

Azken egunotan herrian gertatutako lapurreten aurrean, diruarekin eta baliozko gauzekin arreta berezia edukitzeko eskatu nahi die udaltzainek herritar orori eta bereziki dendariei. Izan ere, joan den astean lapurretak gertatu ziren auto eta tabernetan. Auto batetik dirua eta etxebizitza bateko giltzak ostu zituzten eta Mintxetako tabernan dirua eta beste zenbait gauza lapurtu, 200.000 pta. inguruko kaltea sortaraziz. Hortaz, denda eta tabernetako dirua egunero erretiratzea gomendatzen dute udaltzainek, diru kantitate handiak pilatzen utzi gabe.

■ Nekazaritza biologikoa

Datorren ostiralean, hilak 27, Gipuzkoako Biolur elkarteak eta EHNEk antolatuta, nekazaritza biologikoari buruzko hitzaldia izango da Debako Baserritarren Etxean (gasolindegia ondoan) iluntzeko 8,30etan. Bailarako baserritar guztiei dei egiten zaie hitzaldira joan daitezen.

■ Garantia sozialeko moduluak

Garantia Sozialeko moduluetan izena emateko epea irekita dago. Emango diren ikastaroak igeltsari-tza, arotz-gintza eta sukaldaritza izango dira. Bertan parte hartu ahal izango dute ikasketak utzi dituzten 16 eta 19 urte bitarteko gazteek. Izena emateko Udal-letxeko Gizarte Sailera zuzendu NANaren fotokopia eta egindako ikasketen agiria fotokopia batekin.

■ Sallobenteko jaietako zozketa

Sallobente auzoko jaietan antolatu zen errifaren zozketan saritua irten den zenbakia saldu gabeko tako bateko zen. Antolatzailuek esan digutenez, sariaren zenbatekoa, 200.000 pta., Caritas-i ematea erabaki dute.

Julio Anton Pradera:

"Kiroldogiko talde berriari zorterik onena opa diot"

Azken urtean Deban bizi den arren, orain 30 urte jaio zen elgoibartar honek bere herrian eman du urte mordoa lanean. 1988an ireki zuten Kiroldogia eta gaur arte bera izan da arduraduna, enpresa

pribatu batek kontratatua. Orain, Udal Kirol Patronatuak hartu du kiroldogiaren gestioa eta Juliok zuzendaritza laga behar izan du. Orrialde honetan eskerrak eman nahi izan dizkio Juliok bere herriari.

- Kiroldogia zabaltzeak kirola bultzatu al zuen?


- Bai, noski. 1988. urtera arte Elgoibarko instalazioak nahiko kaskarrak ziren. Kiroldogiak beste bizitza bat eman zion herriari, bai kirol bai kultur mailan. Ikuskizunak, jaialdiak eta abar antolatzeko toki aproposa da.

- Nola antolatu ziren hasiera batean Udala eta Kiroldogia?

- Udala enpresa batekin jarri zen harremanetan. Enpresak zuzendaria aukeratzea eta Udalak Kiroldogiaren gestioan parte hartzea erabaki zen. Udalari ekonomikoki oso ondo ateratzen zitzaion eta horregatik erabaki zuen harreman horri eustea. Kiroldogiaren aurrekontua 27 milioikoa zen eta Udalak 7 jartzen zituen. Horrek esan nahi du Kiroldogiaren autofinantziazioa %75a baino altuagoa dela. Gainera, 1,5 milioi bultzatzen zitzaizkion Udalari ur eta estolderia zergak zirela eta.

- Gustura egin zenuen lan?

- Uste dut urte hauetan lan handixa egin dugula, lan ona. Gure akatsak izan ditugu, lehenengo urtean batez ere kexak egon ziren baina pentsatu nahi dut azken urteetan gauzak ondo egingen hasiak



"Beti egin dugu lan oso borondaterik onenarekin"

geundela bai bazkide mailan, bai ikastaro mailan... Kiroldogiak hasieran zuen fama txarra kendu dugula uste dut. Arazoa oso medio gutxirekin lan egin beharra izan da beti eta azkenean kalitatean igartzen zen.

- Ados al zaude gestio aldaketa egin den moduarekin?

- Kiroldogia publikoa izatea Udalaren eskubidea izan da beti. Niri gaizki iruditzen zaidana izan da Udalak ez duela laguntza gehiegi eman instalakuntzak hobetzeko gauzak aldatu behar zirela esaten genuenean. Orain, Udalak

bere esku hartu duenean hasi da gauzak hobetzen, lehen egin behar zirenak orain eginez. Deialdi publikoa egin artean pertsonala mantentzea eskatzen genuen guk. Hori ez da egin eta ez dut uste zortzi urtean lanean egon eta gero merezi genuenik.

- Diario Vascon, zure kontrako kritika gogorrrak agertu ziren.

- Lehenengo urteetan kexa batzuk izan genituen baina azken urteotan bat ere ez, ez instalazioan ez eta Udaletxean ere. DVko kartan pertsonalarekin sartu ziren, gestioarekin,

instalakuntzekin... Eskutitz horri erantzun genion esanaz kiroldogiko pertsonala kualifikatua zela, bere lanean ondo finkatua, instalakuntza aldetik gauza batzuk hobetzeko zeudela, baina kritikak egin behar diren momentuan egin behar dira edo bestela ez egin. Abuztuaren 24an aurrekoa baino eskutitz gogorragoa agertu zen, nire aurka. Ez dut uste ezer positiboa lortu duenik eta ez genion inolako erantzunik eman merezi ez zuela pentsatu genuelako, nahiz eta min handia egin. Ez dakigu nork bidali dituen, polikiroldogiko bazkidea ez baita. Horregatik, El Diario Vasco kritikatu nahi genuke eskutitza ez egiaztatzeagatik.


- Zerbait esan nahi zenuke?

- Elgoibarko herriari eskerrak eman nahi nizkioke zortzi urte hauetan izan dugun harremanagatik. Eta kiroldogiko langile berriei zorte ona opa diet, benetan. Era berean, kiroldogian egon garen guztiok gauzak ondo egiteko borondatearekin aritu izan garela esan nahi nuke. Herritarrei, berriz, talde berriarekin gurekin izan duten tratua izan dezatela eskatuko nieke. Besterik ez. Eskerrik asko!

JAVI LEON

BARREN

L.H. eta D.B.H.ko IKASLEEKIN EGINDAKO 26. GEHIGARRIA



Argazkian, Pilar ikastetxeko 8. mailako ikasleek Gurasoen Egunerako egin zituzten buruhandiak ikus daitezke. Egun hau alaitzeko ideia martxan jarri zuten eta irakasleen laguntzaz kola, papera eta margoak erabiliz Mortadelo eta bere laguneren mozorroak egitea lortu zuten. Eskulanetako tailerrean pasatutako orduak pena merezi izan zuten eta guraso zein haurrek gogoz txalotu zuten ideia berezi hau.

Tristea



Udal-langile bat parkeko eserlekuak pintatzen ari dela, hurbildu eta esaten dio eskale batek:

- Pintura zer ordutarako lehortuko dela uste duk?
- Gaueko hamabiak alderako. Zergatik ba?
- Penagarria, gaur garaiz joan

Jakitunen eskutik

Eskolara bueltatuko gara

Oporrak bukatu egin dira. Beste kurtso bat hasten da. Guraso zein ikasle eta irakasleok erreforma dela-eta aldaketa berriak espero ditugu. Batzuentzat klaseko lehenengo eguna bere bizitzan gertaera berri bat da (eskolartasunaren hasiera), beste batzuentzat, berriz, aurrerapen bat, hau da, zikloz aldatzen dutenentzat eta beste batzuentzat lagunekin berriro topo egingo dutenez, pozteko arrazoi bat. Izan ere, motibazio ezberdinak izanagatik, guztiok kurtso berri bati hasiera eman diogu.

Orokorki, gauza berriak hasten garenean, gogoz erantzuten dugu, hau da, patuak zer ekarriko duen itxoiten. Esate baterako, ikasleak ginelarik, ilusioz beteta joaten ginen eskolara; lagunak ikusteko, irakasle berriak ezagutzeko e.a. Orain umeak ez dira desberdinak, bere ilusioak guk genituenak bezalakoak dira-eta. Zergatik gurasoak, irakasleak eta ikasleak artean ez gara saiatzen elkarrekin lana gogoz egiten?

Gurasoei dagokigu gure seme-alabak eskolan poztasunez eta beldurrik gabe has daitezten. Nola? Beren buruetan era honetako ideiarik ez sartzen: "andereñoak ederki konponduko zaitu..." edo "eskolan gauzak ez dira etxean bezala, ikusiko duzu zer den ona". Umeak horrelakoak entzuten baditu, eskola oso leku beldurgarria dela pentsatuko du eta, noski, beldurrez joango da eskolara. Hala ere, eskolan beste ume batzuk jolasteko izango dituela pentsatzen badu, edo jostailuak eta andereñoa eta maisu atseginak daudela, eskolara sarrera oso esperientzia ona izango da eta hurrengo egunean errepikatzeko prest egongo da.

Irakasleoi ume guztiak irribarre batekin hartzea dagokigu, baina atseginak izatea ez

du esan nahi lehenengo egunetan nahi duten guztia egiten uztea. Lehenengo egunetatik portaera-arau batzuk irakatsi behar zaizkie. Ez dugu inoiz amore eman behar negarraldi, haserraldi etab.ren aurrean. Hasieratik jakinarazi behar zaie honelako portaerek ez dutela gure harreta erakarriko. Astiro-astiro gainontzeko ume eta andereñoarekin erlazionatzeko beste portaera batzuk hartzen hasiko da.

Bigarren Hezkuntza

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasten diren ikasleak agurtzeko aprobetxatu nahi ditut lerro hauek. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, zera esan nahi dut: hainbeste hitz egin da gai honi buruz, ezen ia denok, batzuk beldurrez, beste batzuek jakinminez, geure buruei galdetzen diegu zein ondorio sortaraziko dituen aldaketa honek. Seguraski ikasleak piska bat beldurturik etorriko dira eskolara, kurtso hau zailagoa izango ote den edo gehiago ikasi beharko duten bezalako galderak eginez.

Guk ulertu dugunaren arabera, erreformak ikasleari aukera gehiago ematen dio, hau da, ikasle bakoitzak interesa, portaera, izaera eta kapazitatea daukanez, ebaluaketa egin ondoren, programa edo edukinak ikasleari egokitu egingo zaizkio eta ez alderantziz. Hartara ume bakoitzak dituen beharrak kontuan hartuko dira, erantzunik egokiena ematen saiatuko garelarik.

Bukatzeko, zera esan nahi dugu: hasi berri dugun etapa berri honetan gurasoak, ikasleak, irakasleak... denok ezinbestekoak garenez, has gaitezen ilusioz, ez horrela hezkuntza hobetzea lortzen dugun.



MONTSERRAT IRAOLAGOITIA
PSIKOLOGOA

Ze iritzi daukazuezkontza.....ri buruz?



Oro gaur polita da familia guztia elkartzen sarelarako eta familia berriak sortzen direlarako.

ION SANCHEZ. 9 urte



Nik egingo dudana handia naizenean maite dudan pertsonarekin.

LYDIA SOTO. 13 urte.



Oro ona da asko jaten dugulako.


ION MUNIN. 10 urte



IDATI ANSOLA
7 wt vg

Galde debalde

- 1- Zein super-heroe izan nahi zenuke?
- 2- Denboran atzera ala aurrera egingo zenuke?
- 3- Momentu zoriontsu bat?
- 4- Ziroko batean, zer izan nahi zenuke?
- 5- Egon al zara sekula maiteminduta?
- 6- Zerk haserraten zaitu?
- 7- Nori emango zenioke musu bat?
- 8- Piropo bat?
- 9- Litxarkeriarik gustukoena?



DAVID RODRIGUEZ
14 wt vg

1. Batman.
2. Atzera, aman tripa barruan nauanian.
3. Estitxu lagunakin Artostera jun nitzanian.
4. Malabarista.
5. Ez, 14 urte da edade onena.
6. Nere lagun batek, ze estuxia kentzen dia.
7. Amatzori.
- 8.- Polita.
- 9.- Palomitak.

1. Superman.
2. Aurrera, 18-24 urte bitartean, lagunekin urten eta oporretan juteko.
3. Nire aitak lehen bizikleta ekarri zidanean.
4. Aurkezlea.
5. Bai, bi nobia edo eduki ditut.
6. Jendeak kontraria eramatea.
7. Cindy Crawford-i.
8. Tio bueno!
9. Triskys.


Zer da... *dirua*.....?

ANĒ IZETA 10 wt vg



"Aberatsek pobreei ez diena ematen."

PATRICIA MENOR 12 wt vg



"Diruak gauzak erosteko balio du. Jende guztiak dirua gordetzen du baina ez dakit zertarako, diruak gordeta ez du ezertarako balio eta."

LUIS LEON 10 wt vg



"Edozein gauza erosteko behar duzuna. Aste bukaeratan ematen dizutena."

GORKA OTERO 8 wt vg



"Goxokiak eta etxea erosteko da. Dirurik ez badaukazu ezin duzu ezer erosi. Dirua lortzeko tailer batera joan behar zara baina igual zuzendariak ez zaitu hartzen."

AINHOA ISASI 12 wt vg



"Gauzak erosteko gauza borobila. Atzeko aldean erregeen aurpegia dago."

AINHOAZQUEZ 7 wt vg



"Asko erabiltzen den gauza bat da. Metalezkoa da, batzuk horiak, beste batzuk haundiak, beste batzuk txikiak... baina denek balio dute."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



ENEIDA ETXANIZ
13 urte

Nahixaoko naban oporrek amaituko ez bazian. Ez jata gustatzen eskolara jutia. Lelengo egunian beti lagun batera deitzen diot batera juteko. Gero, eskerrak lelengo egunian gauza gehixegi ez dan eitxen!

JON GARATE
8 urte


Gauzak prestatu eta eskolara jun ze oporretan normalian aspertu eitxen naiz kanpora jun arte behintzat. Eskolan lista baten jarritzen digute ze gauza eraman bihar ditzugun eta dana prestatzen dot motxilan, kuadernua, boligrafua, tipex-a...



3. Asmakizunak:

- Ez du hankarik eta badabil, bidea egiten du gelditu barik. Ez da idia eta adarrak dauzka.
Zer da?.....
- Lehorreko txalupak: beti binaka dabilta maiteminduak bezala.
Zer da?.....
- Beti atarian deika eta inoiz ez da sartzen.
Zer da?.....

4. Zer idatzi dugu hemen?



ERANTZUNAK: 1.-Angel Garate, 2.-Zein da eskolan hastean egiten duzun lehen gauza?, 3.- Marraskiloa, zapatak eta txirrina eta 4.- Xaboi

Ana Raña

Itzala edergintzako



- **Non dago zure edertasuna?** ▶ Ez daukat ezer bereziki ederra denik.
- **Aurpegi polit bat ala gorputz lirain bat?** ▶ Aurpegi polit bat.
- **Gizonezkoetan lehenengo begiratzen duzuna?** ▶ Ipurdia.
- **Eta emakumeetan?** ▶ Ahoa.
- **Zenbatero pisatzen zara?** ▶ Ez naiz sarritan pisatzen. Loditu egin naizela igartzen dudanean bakarrik.
- **Egun eguzkitsuaren onena kerizpea.** ▶ Oso berotuta bazaude, bai.
- **Dutxa ala bainua?** ▶ Nahiago dut bainua, lasaiagoa delako.
- **Zer moduz konpontzen zara ispilurekin?** ▶ Ondo. Ez naiz askotan begiratzen baina egia da aurrean baduzu tentagarria dela begiratzea.
- **Zure gorputzeko zerbait aldatuko zenuke?** ▶ Bai, behatzak. Oso luzeak ditut.
- **Eguna ala gaua?** ▶ Segun eta zertarako.
- **Zirugia estetikoaren aldekoa al zara?** ▶ Bai. Nire gorputzeko zerbait ez balitzait gustatuko eta ahal izango banu, egingo nuke.
- **Gaurkotasuna duen zein gai kiskaliko zenuke sauna batean?** ▶ Biolentzia.
- **Nahiz eta tximinoa zetaz jantzi, tximinoa beti tximino.** ▶ Ba, ez pentsa. Makilaiaren, argazkigintzaren edo jazteko moduaren bidez esate baterako, asko hobetu daiteke.
- **Masaiak eman ala hartu?** ▶ Ematea gustatzen zait baina nahiago dut hartzea.
- **Kirola egin ala saunan sartu?** ▶ Kirola egin. Lehen eskubaloian jokatzeko nuen baina orain soinketa egiten dut.
- **Zer gosaltzen duzu?** ▶ Baso bat cola-cao eta croissant txiki bat marrubizko mermeladaz.
- **Siestarik?** ▶ Bai, ahal dudanean ordubeteko egiten dut, asko gustatzen zait eta.
- **Eta meriendarik?** ▶ Oso gutxitan.
- **Bizitzako zer makilatuko zenuke?** ▶ Gezurra eta inbidia.
- **Prentsa arrosaren kontsumitzailea zara?** ▶ Bai, astero erosten dut.
- **Telebistako aurkezle bat?** ▶ Ramon García.
- **Gustukoen duzun iragarkia?** ▶ Levis-enak oso ondo daude.
- **Zein pelikula ikusi nahi duzu?** ▶ Heat.

AMAIA GOROSTIZA


Udazkena heldu da

DOINUA:

Antton eta Mari

Alde batera utzi hondartza ta ura berriz hasi beharko betiko modura ostok zahaitzetatik dioaz zorura laster bukatzen zaigu aurtengoan uda jadanik udazkena hementxe heldu da (Bis)

Eskolan berriz ere hasi behar dugu goizean goiz berriro jaikiko gara gu Gabonetara heltzea dugu guk helburu berriro ere oporrak izango ditugu ta berriz oso azkar pasako zaizkigu (Bis)



ALBERTO GONZALEZ



Nafarroa enparantza, 2 - ☎ 74 27 31 -

96-97RAKO EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA eskaintza bereziak.

IKASLE ETA LANGABETUEK PREZIO BEREZIAK.

Bekatzeko sistema ere badugu eta ia dohainik ikas dezakezu euskara.

Salbatorearen irudia jartzeko asmoa dago Santa Klaran

Santa Klarako obrekin batera, hainbat gauza berreskuratu nahi izan da. Esate baterako, Jausoro dorretxeko dobela errepidera begira eraiki den terrazatxoan jarri da. Garai batean Santa Klaran zegoen Salbatorearen ermitatik hartutako santuaren irudia ere arkuari jarri nahi da.

Udala eta Eliza harremanetan jarri ziren gai honen inguruan gauzak nola egin zitezkeen eztabaidatze-ko. Izan ere, zenbait herritar Udaletxera joan dira aipatu tokian Salbatorearen irudia jartzeko proposamena luzatuz. Benantzio Parroko jauna, Udaleko teknikaria eta obren ordezkari bat toki-rik aproposena zein izan daitekeen aztertzen ari dira.

Litekeena da Jausoroko arkuaren zena dagoen tokian zulo bat egin eta bertan sartzea Salbatorearen irudia, beti ere, behar bezala babestuz eta estaliz. Hil honen bukaeran edo urria bitartean egin nahi da, tokia Parrokoaren bedeinkapenez inauguratuz.

Lurrazpiko bidea

Santa Klarako obrak bukatutzat eman daitezke, gutxi gora-behera. Edozein herritarrek igarriko zuen bistarako aldaketa nabarmena jasan duela



inguru horrek. Lehen zeuden herreria desagertu da, Zubi-Ondo elkarteak...

Erdi errotonda bat eraiki da eta lur azpiko pasabidea berritu, besteak beste. Hasierako planoetan Santa Klarako etxebizitzak aurrera eraman dituen inbubiliariak errepidea gainetik zeharkatzen zuen zubi bat aurrikusi zuen. Halere, azkenean atzera bota zen proiektua batetik, Gillermo Garate alkatearen hitzetan, "ezinduentzako ranpak %10a baino gehixo zekelako eta pasua kriston eskalextria izango zalako holako herri noble batentzat. Gainera, demostrata dago jendia ez dala goitik ibiltzen eta hor dao Sigma-ko adibidia". Azkenean pasabidea lur azpitik egin da, lehen zegoenaren antzeko luzera du baina zabalagoa da eta goi partean argizulo bat ireki da. Orain, gaeuz argiak jartzekotan dira.

Errepidearen asfalto berria

Udalak eskabidea egin zuen Aldundiko Errepide Sailean 634-N errepidea asfaltatzeko. Orain arte Kon-



Goitik eta ezkerretik hasita, terrazatxo errepidera begira, Jausoro dorretxeko arku eta erdi errotonda berria.

dia eta Olaso bitartekoa asfaltatu da 40 milioiko aurrekontua izan duelarik, guztia Aldundiaren esku. Asfalto berriaz gain, urarentzat hustubideak eta barandilak ere jarri dira.

Gillermo Garatek esan digunez, "oin eskabidea egin degu San Pedroko bidia konpontzeko baina asuntua da gure errepidea dala eta momentuz estudixu bat ingo dabela esan digute. Gero bilauko dogu akuerdo bat bixon artian".

Euskeraz berba eitxen
ohitxuria hartzeko

IZENEN ENGI GEEKIN

AEK EUSKALTEGIA
Plaza Txikia, 3 Tel. 74 13 32

ASESORIA
GOIAR

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAU
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAU

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Hitzegin ingelesez gaurtik aurrera. Orain egin dezakezu!

Multimethod-ekin: pedagogia, teknologia eta giza-baliabiderik onenen konbinaketarekin, bakarra mundu osoan.

Multimethod-en abantailak:

1. Ordu-tegi librea

Ikasleak klase eguna eta ordutegia aukera ditzake.

2. Klaseak galduta gabe

Denboraldi batean ikasleak huts egiten badu ere, ez du klaserik galtzen. Ikasgai guztiak zikloka errepikatzen baitira.

3. Ordu-mugarik gabe

Ikasturtean zehar ikaslea nahi beste klasetara

joan daiteke. Prezio gehigarrik gabe.

4. Giro berezia eta atsegina

Wall Street ikastegien ezaugarri nagusiak: instalazio modernoak, irakasle onak eta giro atsegina.

5. Arrakasta bermatzen dugu

Ez baduzu ingelesa ikasten dirua itzuliko dizugu. Wall Street InSTITUTEk emaitzak idatziz bermatzen ditu.



Ingelesa Wall Street Institute-n ikasten da

DESKONTU BEREZIAK LEHENENGO 50 MATRIKULTUENTZAT

Dohaineko deialak: 902 399 399

Julian Etxeberria 20, behea
EIBAR

Kilometroak 96 jokoa



Orri guztiak arreta handiz miatu eta Beder eta Sei non dauden asmatzen duzunean, beheko txartela bete eta datorren asteartea (hilak 24) baino lehen BARREnera ekarri. Asmatzen duzuen guztion artean Kilometroak 96ko dendan trukatu ahal izango diren 5 agiri zozketatuko dira astero-astero.

Adi egon eta atera lupa!!

Banoa, banixe,

Euskaraz, bai horixe!!



Hona hemen pasa den asteko irabazleak, atzetik eta ezkerretik hasita: Jose Maria Perez, Anton Mendizabal, Amaia Zubiaurre, Danel Mendibil eta Zuriñe Herrero.



BARREN astekariak eta Kilometroak 96k antolatutako lehiaketa.

Kilometroak 96 jokoa (Irailak 20)

Non ezkutatu ditugu Beder eta Sei? orrialdean.

Izen-abizenak:.....Tel.:.....

MOTZAK

Ehiza txapelketa

La Unión-ek bazkide eta herritarrentzako ehiza txapelketa antolatu du hil honen 28rako. Goizeko 9etatik 13etara bitartean San Migel auzoko Mendibeltzuko inguruetan faisaiak askatuko dituzte. Izena emateko azken egunak hilaren 24 eta 26 dira. Bazkideentzako prezioa 3.000 pta. koa da eta gainontzekoentzat 4.500 pta.

Euskadiko Bolo Txapelketa

Larunbatean, hilak 21, Elegetan hasiko den Euskadiko Bolo Txapelketan Elgoibarko bi taldek hartuko dute parte, biak ere San Migelekoak. Urriaren 19an Markinan izango da finala. Iaz sanmigeldarrek irabazi zuten Euskadiko Txapelketa. Aurten bi taldetan aurkeztzen dira. Ea zorterik duten!

Futbol agenda

Hona hemen futbol partiduen emaitzak eta agenda:

- Elgoibar 1 - Segura 3 (1. erreg.)
- Vasconia 0 - Haundi 1
- Bergara 1 - Elgoibar 1 (2. jubenilak)
- Pedrusko 0 - Soraluze 2
- Larunbata, 21**
- 12,00** Elgoibar - Eibartarrak (2. jub.)
- 17,00** Elgoibar - Aloña Mendi
- Igandea, 22**
- 10,00** S.D. Eibar - Oiartzun (Ohorezko kad.)
- 12,00** Eibar Urko - Getxo (Jubenilak)
- 13,45** Urki B - Soraluze (Jubenilak)
- 15,30** Beti Sutan - Zestoa (2. erreg.)



Jose Luis Insausti:

"Play-offerako sailkatzea da erronka"


■ **Nolatan Pedruskoren entrenatzaile?** - Beraiek esan zidaten ea entrenatzaile izan nahi nuen eta nik baietz. Elkar ezagutzen genuen eta ideia gustatu zitzaidan.

■ **Horrelako lanik egin duzu lehenago?** - Klubarekin entrenatzaileei laguntzen ibili izan naiz eta 18 urterarte jokatzeko. Uste dut jaio nin-tzenetik naizela Klub Deportiboko bazkide. Honez aparte, duela gutxira arte aitaginarreba eta biok antolatzaile lanetan jardun genuen Urasandiko Futbito Txapelketan.

■ **Gogor eta serio ari zara. Gustura?** - Bai. Ardura handia da. Nerbio handiak pasatzen dira. 22 lagun dominatu behar dituzu eta disziplina bat ezarri behar diezu. Adibidez, zapatu gauean kalera ez irteteko eskatzen diet eta 18-19 urteko mutilak hori betetzea nahikoa gogorra da. Hala ere, ni konturatzen naiz zeinek ez duen esandakoa bete, partiduan igarri egiten baita.

■ **Fisikoki gogorra egiten zaizu entrenamenduak jarraitzea?** - Orain daukadan pisuarekin ezin dut eurek adina egin baina korrika egin behar bada nik ere korrika egiten dut. Dagoeneko sei bat kilo kendu ditut eta denboraldi amaierarako 90 kilora iristea nahiko nuke.

■ **Mintxetan parti-**



du guztiak. - Lehen errondako 20 partidutik 14 Mintxetan jokatuko ditugu, eibartarrek ere Mintxetan jokatzeko dute eta. Gastu gutxiago suposatzen du horrek. Bidaiarik luzeena Zarautzera izango da.

■ **Arerioak gogorrak al dira?** - Denak antzera xamar. Zortea behar izaten da eta golak sartuko dituen jokalarik bat, teknikoki zertxobait nabarmentzen dena.

■ **Eta zaletuak?** - Gutxi. Orain arteko partiduetan jende gutxi etorri da, inguruan zebiltzanak baino ez, lagunak eta senitartekoak.

■ **Eskerrak eurei gogorik ez zaien falta, bestela...** - Bai, argi dago ilusio handia dutela bestela ez dago Mintxetara gaueko 8,30etan entrenatzera joaterik, eta neguan... are gutxiago.

■ **Liga amaieran, zein postuarekin konformatuko zinateke?** - Play-offerako sailkatzea nahiko nuke, horixe da nire buruari jarri dion erronka. Zaila da baina... Sailkatzerik lortuko ez bagenu, taularen erdi aldean amaitzea nahiko nuke. Azkenak ez izatea, behintzat.

• Adina: 35
• Beste talderik entrenatzekotan?
Haundia ondo egongo litzateke
• Futbola ikusteko egunik aproposena?
Larunbata



LABBANAGA autoeskola

Nora begira zaude? Zatoz lehenbailehen karneta ateratzera!!

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

PEDRUSKO F.C.



2. erregionalean hasi eta...

Sigma edo RISeko kuadrila baten eskutik Pedrusko taldea sortu zen duela urte batzuk. Hasieran Urasandiko futbito txapelketan jokatzeko asmoarekin sortutako taldea bazen ere, futbolarekiko zaletasunak 2. erregionaleko taldea sortzera eramán ditu. Ilusio eta goxo irmoaren adierazpide ezin hobek dira.

Iragan berri den udan Pedruskoko mutilak Udál Kirol Teknikariarekin harremanetan jarri ziren futbol talde federatu bat sortzeko ideiarene bueltan. Mintxetako zelaia partidu eta entrenamenduetarako uztearen truke, Mintxetako Futbol-7 Txapelketaz ardura zitezen eskatu zien teknikariak Pedruskokoei. Esan eta egin. **Klubaren eratzea**

San Bartolome jaietan txozna ipini zuten dirua ateratzeko bai eta entrenatzailea topatzen hasi ere. Jose

Luis Insaustiri proposatu zioten ardurá hori eta honek, noski, baietz erantzun. Federaziora abiatu ziren estatu-tuak jaso eta klub bezala eratzeko.

Denboraldi hasiera

96/97 denboraldiko hasiera "kaxkar" xamarra dela adierazi digu Pedruskoren entrenatzaileak. Ligako bi partidutatik bat berdindu egin dute eta bestea galdu. Dena den, kontuan izan behar da zelai handian jokatzen duten lehen aldia dela. Plantila osatzen duten 22 jokalarietatik 5ek baka-

PEDRUSKO, F.C.

- PRESIDENTEA: **J. Mari Oruesagasti**
- KATEGORIA: **2. erregionala**
- JOKALARI KOPURUA: **22**
- BATAZ BESTEKO ADINA: **19/20**
- BAZKIDE KOPURUA: **107**
- AURREKONTUA: **400.000 pta.**
- FUTBOL ZELAIA:

Mintxeta

- EGOITZA:
- **Sigmako lokala**



rrik jokatu dute noiz edo noiz zelai handian.

Jokalari guztiak oso gazteak dira, 18 urte dituzte gazteenek eta zaharrenak 25 ditu.

Entrenamenduak

Ofizialki irailaren leian hasi baziren entrenamenduak, uztailean eta abuztuan ere aritu dira entrenatzen. Asteán hiru aldiz joaten dira Pedruskokoak Sigmatik Mintxetara, arratsaldeko 8,30etatik 10ak arte. Eguneko azken orduetan bakarrik dago libre zelaia eta hortaz, ordu horiek aporbetxatu behar dituzte. Událak zelaia eta aldagelak uzten dizkie, eta gainontzeko gastuak, txoznan irabazitakoarekin errenditzeko asmoa dute. Hala ere, kamisiten zebatekoaren erdia Oraiko tabernakoek ordaindu diete. Bazkidegoa ere handitzen ari da. Klubeko kide egiteko urtean 1.000 pta. ordaindu behar dira. Momentuz 110 inguru dira eta Gabonetan otar batzuk zozketatuko dira bazkideen artean.



Hauek dira Pedrusko taldea osatzen dutenak: atzetik hasita, J.L. Insausti (entrenatzailea), Iker Izagirre, Oskar Uriá, Raul Alonso, Carlos Conde, Jon Albizu, Raul Carcedo, Gorka Iriondo, Aitor Jauregi, Garikoitz Muñoz, David Rojo eta Carlos García. Makurtuta: Jose Manuel Gómez, Sergio Nogales, Jose Antonio Nogales, Luis Alberto Bellota, Juan Ignacio Revert, Iker Aranberri, Jonathan Aldazabal, Iker Gomez, Unai Leiaristi eta David Conde. Falta dira: Iñaki Carcedo eta Ruben García.

Maria Urizar
ileapaindegia
eta solariuma
Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89


**UDA
BERRI**
ELGOIBAR

17.000 lagun izan dira aurten aire libreko zinea ikusten

Aurten 17.000 pertsona inguratu da aire libreko zinera Ongarri Zine Klubak prentsaurrekoan azaldu zuenez. Iaz 3.000 pertsona gehiago hurreratu bazen ere, Iñaki Soartek esan bezala, "aurten ura izan dugu alde guztietatik eta horrek jendearengan asko eragiten du". Guztira 18 pelikula eman dira. Datorren urteari begira, Ongarrik beste herrietara joateko asmoa du aire libreko zine emanaldiarekin. Horrez gain, soinu aldetik egin nahi dituzte hobekuntzak, esaterako, soinua estereoa jarritz. Bestalde, Ongarrik atentzioa deitu nahi du jendearen artean guztiek pantaila ondo zain dezaten. Aurten pantaila apurto egin da eta berria erosteak 600.000 pta.ko kostua dauka. Bestalde, urri aldera jarriko dute martxan Zine Kluba. Hori dela eta, elkarte guztiei jakinarazi nahi diete edozein ideia entzuteko prest daudela eta nahi duenak Ongarrik Artetxe 28, behean duen lokalera jo edo bertako buzoian utz dezakeela proposamena.

San Migelen ohorezko jaiak

Datorren asteburuan jaiak ospatuko dituzte San Migel bailaran. Urtero bezala, denetik egongo da datorren ostiralean hasi eta igandera bitartean. Hilaren 27ko gauerako, ostirala, bertso jaialdia antolatu dute Peñagarikano, Sorozabal, Mendiluze, Murua, Jon Sarasua eta Euzkitzeren partaidetzarekin. Segidan erromeria izango da Eganen eskutik. Zapatuan, hilak 28, Haritz taldeak dantza ikuskitzuna eskainiko du. Ondoren erromeria egongo da eta jarraian bolo txapelketa. Igandean, hilak 29, San Migel eguna ospatuko dute. Mezaren ostean, bertsolariek jardungo dute eta eguerdian pilota partiduak izango dira. Arratsaldeko 5,30etan idi demen txanda izango da. Jaiak Musutruk taldearen saioarekin eta txekorraren zozketarekin amaituko dira.



Josu Mujika eta Ainhoa Lodoso ETBko "Berriketa gutxi" saioan

Datorren asteazkenean, hilak 25, Jose Mari Iriondok zuzentzen duen ETB1eko "Berriketa Gutxi" programan bi elgoibartarren arteko solasaldia ikusteko aukera izango da. Ainhoa Lodoso BARRENEko zuzendariak Josu Mujika dantzaria elkarrizketatuko du. Ordu erdi batean Mujikak dantza munduan igarotako urteei errepasua emango die bai eta Goenkale telesail ezagunean egingo duen pertsonaia berriaren nondik norakoak azaldu ere. Programa asteazkenean gaueko 12,30etan emango da eta bi aldiz errepikatuko: ostiral ean 12,30ak aldera eta hurrengo asteko arteartean.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

HISPANIA ZURICH

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Emakumeen *Haize* berriak

Datorren asteartean, hilak 24, Haizea emakume talde eratu berriak aurkezpena egingo du herritarren aurrean. Emakume helduak eta gazteak elkartera hurreratuz, “emakumeak bere eskubideak zein diren jakin eta horiez baliatzea” da elkarte berriaren asmo nagusienetariko bat.



Guraso Eskolan ezagutu ziren 22 emakumek osatzen dute Haizea taldea.


Feli Garitagoitia zenak Haizea Emakume Taldea sortu zuen duela mordoska bat urte. Hura desagertu egin zen. Orain, herriko zenbait emakume elkarte bat sortzeko bildu direnean, Haizea zaharraren izpiritua, izena eta estatutuak bereak eginez, lehen pausoak emateari ekin diote.

Guraso Eskolako hazia

Haizea osatzen dutenak ikastetxe ezberdinetan seme-alabak dituzten amak dira, emakume helduak gehienak. Gloria Santiago eta Izaskun Estibariz elgoibartarrak Haizea osatzen duten 22 kideren arteko bi dira. Hauen esanetan, “herriko emakume guzti-guztiei irekia dago gure elkarte. Berdintasunaren bidean, berebiziko garrantzia dauka sozialki emakumearen partehartzea bultzatzea”. Beraz, emakumearen Heziketarako Elkarte da Haizea eta Guraso Eskolaren baitan sortu zen ideia. “Hango hezitzaileekin hainbat gai lantzen genituen gure seme-alaben heziketa-

ren inguruan, baina arazo horiek emakumeok ere bagenituela ikusita eta emakumearen arloan Elgoibarren hutsune bat zegoenez, elkarte sortzera animatu ginen”.

Udaleko Ongizate Sailaren bitartez Pedro Muguruzako eskoletan egoitza lortu dute eta Emakunde ere diru-laguntza eman die hemendik eta Gabonetara bitartean hainbat ekintza antolatzeko: tailerrak, video-forumak eta beste emakume elkarte batzuekin elkartrukeak. Printzipioz hilean behin asanblada orokorra egiteko asmoa dute eta lantaldeak, berriz, astero-astero bilduko dira. Topaketa guztietarako jarri duten ordua arratsaldeko 3,30ak dira, “hori baita gehiengoari ondo etortzen zaion ordua”. Hilero 200 pta.ko kuota ordaintzen dute eta aktiboki parte hartu nahi ez duten emakumeek kuota ordainduz lagun dezakete, guk trukean, egiten dugun guztiaren informazioa bidaliko genieke”. Elkartekoekin harremanetan jartzeko 74 10 08 zenbakira dei daiteke (Kati).



Pello Arrieta Elgoibarko arte eta historiari buruzko liburua egin du

Datorren ostegunean, hilak 26, Pello Arrieta Soraiz Institutuko historia irakasleak Elgoibarko arkitektura zibilarri buruzko liburua aurkeztuko du arratsaldeko 7,30etan kultur Etxean hasiko den ekitaldian. 46 urteko historiagile honek bai arte bai historiaren ikuspuntutik aztertzen ditu Elgoibarko hainbat leku: plazak, dorretxeak, zubiak, iturriak, Katanarrako arkuak, Moruko herriska etab. Honako liburu honez aparte, beste lan batzuk ere eginak ditu Pellok, hala nola, armen fabrikazioari buruzko tesia eta beste lankide batzuekin egindako lau testu liburu eta ikas-material. Elgoibarko ondare histori-artistikoari buruzko liburuak 122 orri ditu eta 86 irudi eta argazki. Aurkezpen eguna eta gero, Pelloarekin harremanetan jarrita edo herriko liburutegietan 1.000 pta.ren truke eskuratu ahal izango da liburuak.

Atzeratu egin da Kilometroen erakusketa

Antolakuntza arazoak direla-eta, San Bartolome ikastolari buruzko argazki erakusketaren inaugurazioa atzeratu egin da hilaren 20tik 23ra, astelehena. Hortaz, erakusketak astelehenean, arratsaldeko 7etan irekiko ditu ateak eta urriaren 6ra arte hainbat argazki bai eta kilometroetarako egin dituzten orri informatiboak ere ikusgai egongo dira Kultur Etxean.

"PERUN ospatu gendun San Bartolome bizperia"

- Azkenean ezagutu duzue Peru.

- Bai. Alde batetik Haritza han zauan eta beti da bentaja bat. Berak jate-txe bat dauka Huaraz-en, Euskal Herria izenekua. Hemengo jatekua jartzen dau, hango produktuekin baina hemengo erara pre-parauta eta jende mordo bat juten jako.

- Inka ibilbidea egin zenuten.

- Bai. Machupichura juteko turista gehixenek trena edo autobusa hartzen dabe. Baina guk Camino inca deitzen dana eitxia nahi gendun. Lau egunian ailegau ginan. Oso politxa da eta merezi dau, ze trenez junda ikusten ez dian gauzak ikusten ditxuzu. Han dao Puerta Del Sol deitzen dana eta goitxik behera ikusten dozu Machupichu.


- Machupichutik Huaraz-era.

- Bai, Huaraz Andee-tako hiriburua da eta Mendikate Beltzaren eta Zuria-ren artean dago. Mendikate Beltzian ez dago elurrik, dana da harrixa. Zurixa, berriz, dana da elurra nahiz eta bixak altura berdinian egon. Itxuria itsasuak, hai-ziek eragiten dabe eta...

- Santa Cruz-Yanganuco ibilbidea ere egin zenu-ten.

- Bai, beste lau egun oinez. Guztira 50 km.ko ibilbidia zan baina etapa batzuk oso aldapatsuak zian eta egun batian bestian baino kilometro gitxio

Idoia Astigarraga, Jabi Rodriguez "Rolling", Aitor Monasterio eta Pili Beristainek Peru ezagutzeko aukera izan dute aurtengo abuztuan. Aspalditik zuten Hegoamerikako herrialde hura ezagutzeko gogo eta aukera izan dutenean, adarretatik heldu diote zuzen-zuzenean. Hilabete egon dira bertan. Tarte horretan denetik egiteko aukera izan dute, bai mendiak bai eta turismoa ere. Hona hemen Idoiak eta Rolling-ek kontatutakoa.



eitxen gendun.

- Mendirik ere: Urus eta Isinca.

- Bai, baina mendixa itxen genduanian ere, behera bajatzen ginan eta turismua eitxeko denboria eukitzen gendun. Noizian behin bi-hiru egun des-kantsatzeko hartzen genitxun eta juten ginan bainu beruak hartzera ze han mordo bat daude eta nahiko merke.

- Merke atera zaizue?

- Karuena biajia da baina gero bizimodua oso merkia. Eta 100 pta.gatik zopia, arroza, arkumia zakazun eta zumo naturalak ere mordo bat. 50 pta.tan kriston kantidadia.

- Huascaran-era igo ziren mutilak.

- Bai, 6.768 m.ko altura dauka. Bost egun inguru kostatu zitzaien. Bitartean Pili eta ni Islas Ballestas-era jun ginan, han pingui-nuak, itsas otsuak eta abar

daude. Oso politxa.

- Miseria asko al dago?

- Herri txikixetan etxiak buztinez inda daude, ez dake ez ur berorik ez argirik... Baina pozik bizi dia. Oso jende irekixa da, daken guztixa ematen dizue eta kriston galdera mordua eitxen denbora guztixan. Zela bizi zeran, ezkondata zauden, zenbat kostatu jatzun hegazkin biletia... Baina nik pentsatzen naban baino miseria gitxio dao. Herri guztixetan eskola bat dao nahiz eta umiak eskolara eta lanera juten dian.

- Izan zenuten harreman-ik eurekin?

- Bai, bueno hasieran hartu gendun arriero bat eta bi asto, gauzak eruateko. Eta tipo harekin berba asko eitxen gendun. Berak kontatzen zigun zela bizi zian...

- Ospatu al zenituzten San Bartolomeak?

- Bai, bizperan garga-rdo batzuk hartu genduzen. Gainera, bai Cuzcon bai Huarazen kriston martxia dao. Taberna mordo bat, musikia hemen baino hobia, jendiak dan-tza mordo bat eitxen dau... Han dake ohitxuria mutilak neskeri etartzeko dantzara, nahiz eta solteko dantzia izan eta gu bakarrik urtetzen ginanian harritxuta geratzen zian.

- Hilabete ez al da luze egiten?

- Ez, motza, ze gauza mordo bat ikusi gabe etorri gera. Baina berriz ere buel-tatuko gera egunen batian.

Salerosketak

- ❖ SETTER INGELES arrazako hiru koloretako txakurkume eder bat saltzen dut. Arra da. Prezio onean. ☎ 75 61 47
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. TALBOT SOLARA. Egoera eta prezio onean. ☎ 74 30 02 (gauz)
- ❖ ILARAKO MONOPATINAK saltzen ditut, lau erroberatakoak. ☎ 74 20 95 Iban
- ❖ AUTO TELEGIDATUA saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. ☎ 74 22 75
- ❖ TRABESIAKO ESKIAK saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. Egoera eta prezio onean. ☎ 74 40 62 Agustin
- ❖ LOGELA OSOA daukat saltzeko. Baita sarrerarako takiloia ere. ☎ 74 24 57
- ❖ ABDOMINALAK LANTZEKO "Boumerang" taula eta gomazko "Beuch-Marlin" urpeko arrantza fusila ditut salgai. Berri-berriak. ☎ 74 36 36
- ❖ KANITXE TXAKURKUMEAk salgai. ☎ 74 43 50 Nekane
- ❖ MOBILETE Coma Harvard motor beltza saltzen dut, berri-berria. 50.000 pta. ☎ 75 10 01 Jabi
- ❖ SEAT IBIZA SS-AG saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajea. ☎ 74 10 59

Partikularrak

- ❖ Lehen Hezkuntza, DBH lehen zikloko eta ingelesko partikularrak ematen ditut. ☎ 74 28 02
- ❖ Fisika, Kimika eta Matematika partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 74 43 98/10 27 82 Marian

Etxebizitzak

- ❖ Etxe bat saltzen da Santa Ana kalean. Etxe handia eta prezio onean. ☎ 74 10 53
- ❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren. ☎ 61 96 60 Ana
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut Errosario kalean. ☎ 74 09 74 (Dolores)
- ❖ PISUA SALGAI daukat LEKEITION. Handia eta itsasora begira. ☎ 74 32 48
- ❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. ☎ 74 04 75
- ❖ Elgetan BASERRI BAT salgai. Lasai deitu. ☎ 12 09 67/12 71 10

Garajeak

- ❖ Garage itxi bat saltzen dut Santa Ana kalean. ☎ 74 21 21

Bestelakoak

- ❖ DBHko 1. mailako neska talde batek joku eskolarretan aritzeko futbol, eskubalo eta saskibaloian entrenatzeko pertsona bat behar du. ☎ 74 25 42 Ainhoa (Gauz 8,30-10)
- ❖ King-Kong-eko autobus geltokian Adidas sudadera ahaztu nuen astelehenean. Grisa da eta marra urdinak ditu barra zuri batekin. Topatu zuenak bueltatuko balit eskertuko nuke. ☎ 74 28 22
- ❖ Andra-gizonentzako LOGELA OSOA, OHE BAT ETA SARRERAKO TAKILOIA behar ditu Caritasek. ☎ 74 10 09 / 74 12 57



Lana

- ❖ Sukaldaria behar da jatetxe batean lan egiteko. Interesatuek Posta kutxa 48 zuzenbidera bidali sobreak azalean "Sukaldari" erreferentzia zehaztuz.
- ❖ Marrazketa industrial eta didriko partikularrak ematen ditut. ☎ 74 43 98 Iñaki
- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 04 75
- ❖ Konfidantzako familia batek au-pair bat behar du Northampton-en (Ingalaterra) irailetik aurrera. ☎ 74 15 73
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauz. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. ☎ 74 36 38
- ❖ Austriako familia batek Au-pair bat behar du 9 hilabetez. Aleman piska bat jakin beharko luke. ☎ 19 10 96 Edurne
- ❖ Adineko emakume bat zaindu eta harekin bizitzeko emakume bat behar dugu. Hobe euskalduna. ☎ 74 00 37
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ 75 62 18
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoaren Hezitzaile tituluak daukat eta lan egingo nuke. ☎ 74 34 68
- ❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. ☎ 75 61 79

Agurrak

- ❖ Zorionak Itsaso Garitagoitiari hilaren 19an 9 urte egin zituelako. Aitaxo eta amatxo, Ainhoa eta Josu eta amama eta lehengusuen partez.
- ❖ Zorionak Basuetako amama Mariari hilaren 12an 77 urte bete zituelako. Iloba, seme-alaba eta errainaren partez.

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....	461111
Txanda hartzeko.....	743354
Planning-a	742950
Alkoholiko Anonimoak ..	740385
D.Y.A (anbulantzia) ..	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Drogomenpekotasun Z.	741008
Odol Emaileak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar).....	102131
Taxi geltokia.....	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
(Kiroldegia)	
Kultura Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
Elgoibarko Izarra.....	741626
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia.....	740842
Postetxea.....	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 44 41
L.H.I.....	74 44 80
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español	74 10 82
Egin.....	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

ASTEAN ZEHAR

20 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

21 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Zazpikiko lokalean

19,30-22,15 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

22 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

23 ASTELEHENA

18,00 MARRAZKETA IKASTAROA

✓ Egur Arte Tailerrean (Ubitarte)
Urriaren 11ra arte

19,00 IKASTOLAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kilometroak 96
Urriaren 6ra arte

22,15 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

24 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Las dos caras de la verdad”

25 ASTEAZKENA

8,15 ERRIOXARA TXANGOIA

Antolatzailea: Jubilatuen Etxea

19,00 IKASTURTE HASIERAREN
AZALPENA INSTITUTUAN

D.B.H 1/2. eta BBB eta IEEko 1go
mailako ikasleen gurasoentzat

✓ Ezenarro ikastetxeko aretoan

26 OSTEGUNA

19,30 PELLO ARRIETAREN
LIBURUAREN AURKEZPENA

“Elgoibarko ondare artistiko-
historikoa: arkitektura zibila”

✓ Kultur Etxean

27 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“En busca de la ciudad perdida”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
21, larunbata:	Ormazabal	Ormazabal
22, igandea:	Ormazabal	Ormazabal
23, astelehena:	Yudego	Zabaleta
24, asteartea:	Yudego	Zabaleta
25, asteazkena:	Yudego	Zabaleta
26, osteguna:	Ormazabal	Zabaleta
27, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

OKINDEGIA:

22, igandea: FOTERO

ZinEa

Las dos caras de la verdad

Zuzendaria: Gregory Hoblec
Antzezleak: Richard Gere, Laura
Linney, Edward Norton.

Martin Vail (Richard Gere) abokatu
kriminalista bat da. Izaera gogorreko
gizon harroa. Hain sentitzen da seguru
bere buruarekin, ezen elizgizon bat
hiltzea leporatzen dioten gazte bat
defendatzeko prest egongo den ezertxo
ere kobratuko gabe. Gaztearen defentsa
benetako erronka da abokatuarentzat,
Fiskalaren bulegoan lan egiten zuen
garaian bere zuzendaria zena baita oku-
sazioan arituko dena.

ASEGURUAK

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxes: 74 41 23

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA
ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE ETA
FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)



EGONDO, S.L.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
GALDARAGINTZA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

SAN MIGEL AYZOKO JAIAK

27 OSTIRALA

20,00: JAIEN HASIERA.

22,30: BERTSO JAIALDIA Peñagarikano, Sorozabal, Mendiluze, Murua, Jon Sarasua eta Eguzkitzerekin.

Ondoren ERROMERIA Egan taldearekin.

28 LARYNBATA

22,30: DANTZA JAIALDIA Haritz taldearekin.

Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin.

01,00: BOLO TXAPELKETA

Sariak: 1- SHIL motoserra

(Berrizko Nekazari etxeak emandakoa)

2- 12.000 pta.

3- 8.000 pta.

4- 4.000 pta.

5- 2.000 pta.

6- Ustekabea

Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

29 IGANDEA

SAN MIGEL EGVNA

11,30: MEZA Nagusia.

Ondoren, Ziarda eta Mañukorta BERTSOLARIEN SAIOA eta Balzola anaiak TRIKITILARIAK.

13,00: AUZOKO BIKOTEEN ARTEKO XIII. PILOTA TXAPELKETAren azken partidua.

17,30: IDI DEMAK Soarte, Iriarte eta Madarixako Ezkerrarekin.

Sariak: 1- 125.000 pta eta garaikurra.
2- 110.000 pta eta garaikurra.
3- 100.000 pta eta garaikurra.

22,00: ERROMERIA Musu truk taldearekin.

24,00: TXEKORRAREN ZOZKETA.



OHARRA: Aparkalekua egongo da. Antolatzaileek ez dute gerta daitezkeen ezbeharren ardura bere gain hartuko.

GREMIOEN GIDA

ARROZTEGIAK

ARMEKO
Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 43 83

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI
Leihoak-Armairu enpotratuak
Ubitarte, 2
☎ 74 13 33

LODOSO
Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

YOSU THERMIK
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 43 83

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 74 03 96

ITYRGINTZA

ANGEL
Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI
Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

ONGI
Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA
San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA
Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

Gremioen gida honetan
azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

IGELTSERITZA

KIDEOK S.L.
San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ (989) 58 37 61

ANTONIO MARKEZ
Urasandi, 24
☎ 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ
Urasandi, 24 - 2B
☎ 74 29 87

PATXILLO
Pedro Muguruza, 13-5
☎ (908) 31 96 42

ISOLAMENDYAK

GLAS CONTROL S.L.
Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

ELEKTRIZITATEA

AZPELETA
San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12
☎ 74 13 76